

(https://www8.smartadserver.com/click?imgid=25443260&insid=9488926&pgid=1026135&ckid=1868851772406439768&uii=246113402938228861&...itxi-dituzte-gipuzkoan.htm&go=https%3a%2f%2fwww.badok.eus%2fbuletina%2f)



KORONABIRUSA

# Sagardotegiak itxi dituzte Gipuzkoan

Ostalarien elkarteek gomendatu dute tabernak ixtea; hala egingo dute Gasteizko alde zaharrean asteburu honetan.

**Iker Aranburu - Jokin Sagarzazu (https://www.berria.eus/egilea/Iker_Aranburu_-_Jokin_Sagarzazu)** (https://twitter.com/@aranburu_iker)



Hernaniko Iparragirre sagardotegia, artxiboko irudi batean.
NAGORE LEGARRETA
(https://www.berria.eus/argazkiak_jarraia/egunekoak/2020-03-13/jarraia178802.jpg)



(https://www8.smartadserver.c... imgid=25017187&insid=9278... itxi-dituzte-gipuzkoan.htm&go=https%3a...

**Gehien irakurriak (https://www.berria...**

2020ko martxoak 13

f
(https://www.facebook.com/sharer/sharer.php?u=https://www.berria.eus/albisteak/178802/sagardotegiak-itxi-dituzte-gipuzkoan.htm)
(https://twitter.com/share) 0
(https://www.berria.eus/albisteak/178802/sagardotegiak-itxi-dituzte-gipuzkoan.htm#disqus_thread)
(https://www.berria.eus/berrialaguna/login)

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak jakinarazi du gaurtik aurrera eta hamabost egunez eten egin dituztela bazkari eta afari zerbitzuak. «Egoera honen aurrean zentzuz jokatuko dugu, gure bezeroen eta langileen osasuna kontuan hartuta», azaldu dute.

Hernaniko sagardogileek bilera bat egin dute goizean, eta «aho batez» erabaki dute sagardotegiak ixtea. «Ez dakigu noiz arte», azaldu dio sagardotegi bateko arduradunak BERRIA-ri.

Azken orduetan bezero askok bertan behera utzi dituzte asteburuko erreserbak, eta besteei deika ari dira, erabakiaren berri emateko.

Kalte ekonomiko handia izango dutela onartu dute sagardotegiek, baina arduraz jokatu nahi dutela.

Sagardotegien erabakia ostalaritzaren sektorean datozen orduetan eta asteburuan etor daitekeenaren atarikoa izan daiteke. Gasteizko parte zaharreko 20 bat tabernak, adibidez, gauza bera egingo dute, gaur hasi eta astelehen arratsaldera arte gutxienez. Hainbat leku ixten hasiak dira. Eta azken orduetan erreserba ugari bertan behera uzten ari dira bezeroak.

**Ostalarien elkarteak, ixtearen alde**

1 **Nafarroako gizarte zerbitzuen esku zegoen haur bat bere buruaz beste egiten saiatu dela salatu dute (https://www.berria.eus/...gizarte-zerbitzuen-esku-zegoen-haur-bat-bere-buruaz-beste-egiten-saiatu-dela-salatu-dute.htm)**
EDU LARTZANGUREN (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA...

2 **Manuelarentzako proba (https://www.berria.eus/...06-02/manuelarentzako-proba.htm)**
XABIER PAYA RUIZ (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA...

3 **Irene Monteroren 'off'-eko elkarrizketa filtratu izana gaitzetsi du EITBk (https://www.berria.eus/...monteroren-off-eko-elkarrizketa-filtratu-izana-gaitzetsi-du-eitbk.htm)**
LANDER MUÑAGORRI GARMENDIA (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA...

Ostalarien elkarteek erakundeei eskatu diete establezimenduen itxiera agintzeko. Nafarroako Ostalaritza eta Turismo Elkarteak, adibidez, gomendatu du sektoreko negozio guztiak ixtea aldi baterako –martxoaren 30era arte–, prebentzio neurri gisa. Elkartearen ustez, hobe da egoera «kolpetik geldiaraztea», sektorearen «hondamendia» eragin dezaketen neurriak pixkanaka hartzen jarraitzea baino. Ixtea erabakitzen ez dutenei, eskatu die langileak eta bezeroak «behar bezala» babesteko, osasun erakundeek emandako aholkuei jarraituz.

Gipuzkoako ostalarien elkarteko bozeramaile Mikel Ubarretxenak, berriz, adierazi du ixtea litzatekeela erabakirik egokiena, azkenengo bi egunetan taberna eta ostatuen jarduna «erabat erori» dela ikusita. Ubarretxenak gaineratu du sektoreko enpresariak oso larrituta daudela, ez baitakite noiz arte iraungo duen krisiak. «Ziurgabetasun horrek asko beldurtzen ditu, pilatzen ari zaizkien gastuak ikusita».

Elkarteko iturriek azpimarratu dute ostalarientzat ez dela erabaki erraza negozioak ixtea, «asko» dutelako jokoan. Hala, azaldu dute haiei ez dietela esango zer egin. Gogoratu dute establezimenduak nahitaez ixtea osasun agintaritzak baino ezin duela agindu. «Bakoitzak bere lokala itxi ala ez erabaki dezake, baina guk gomendatzen dugu gertaeren bilakaeraren zain egotea eta horri buruz osasun agintaritzak hartzen dituen erabakien zain egotea».

4 **Hezkuntza. Ikasleak ez, irakasleak bai (https://www.berria. 06-02/bhezkuntzab-ikasleak-ez-irakasleak-bai.htm)**
IRATI URDALLETA LETE (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILE/

5 **Tabernak (https://www.berria. 06-02/tabernak.htm)**
ONINTZA ENBEITA (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILE/

(https://www8.smartadserver. imgid=25441754&insid=9487 itxi-dituzte-gipuzkoan.htm&go=https%3a

## Goizeko buletina

BERRIAren papereko edizioaren gai nagusiak biltzen ditu egunero (astelehenetan salbu). Goizean goiz iristen da zure posta elektronikora.

☐

[Pribatutasun politika (https://www.berria.eus/legeinformazioa#pribatutasuna)](https://www.berria.eus/legeinformazioa#pribatutasuna) eta [Lege informazioa (https://www.berria.eus/legeinformazioa)](https://www.berria.eus/legeinformazioa) irakurri ditut eta onartzen ditut

☐ No soy un robot
reCAPTCHA
Privacidad - Términos

idatzi zure pc

Harpidetu

## Albiste gehiago




### Koronabirusaren azken datuak (https://www.berria.eus/albisteak/178753/k.htm)

Azkeneko 24 orduetan ez da inor hil COVID-19 gaitzaren eraginez. Bost positibo atzeman dituzte PCR probekin, eta 11 gaixo ospitaleratu dituzte. Euskal Herrian 29.309 gaixok eman dute positibo guztira, koronabirusa atzemateko probaren bat eginda. Horietatik 2.066 hil dira. **Grafikoak, albiste barruan.**



### Munduan sei milioi pertsona baino gehiago kutsatu ditu birusak (https://www.berria.eus/albisteak/182237/m.htm)

375.000 pertsona hil dira COVID-19aren eraginez. Horien artean 105.000, Ameriketako Estatu Batuetan.



### Hirugarren fasearen peskizan (https://www.berria.eus/paperekoa/2280/002/001/2020-06-02/hirugarren-fasearen-peskizan.htm)

EDURNE BEGIRISTAIN (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/EDURNE_BEGIRISTAIN)

Datozen egunetan ere datuak onak badira, astelehenean hirugarren fasera pasatuko da Hego Euskal Herria. Erkidegoek kudeatuko dute nolakoa izango den alarma egoeratik ateratzeko azken urratsa




**[Ia 3.800 langabe gehiago maiatzean, Hego Euskal Herrian (https://www.berria.eus/albisteak/182238/i.htm)](https://www.berria.eus/albisteak/182238/i.htm)**

[EDU LARTZANGUREN (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/EDU_LARTZANGUREN)](https://www.berria.eus/egilea/edu_lartzanguren)

Denera, 182.852 pertsona daude izena emanda lana topatzeko zerbitzuetan.

---

Irakurle agurgarria:

Honaino iritsi zarenez, eskaera bat egin nahi dizugu: irakurtzen ari zaren edukia eta egunkaria babestea, konpromiso ekonomikoa hartuz. Publizitatea eta erakundeen diru-laguntzak ez dira nahikoa BERRIAren etorkizuna bermatzeko. Sarean eskaintzen dizugun edukia irakurtzen duzuen milaka irakurleek proiektuari ekarpena eginda, urrutira iritsiko ginateke.

Kazetaritza libre, ireki eta independentea egin nahi dugu euskaldunontzat. Euskaraz informatzea delako gure eginkizuna, eta zure eskubidea.Lagun gaitzazu bide horretan. Idatzi gurekin etorkizuna. Geroa zugan.

**Martxelo Otamendi**
BERRIAko zuzendaria

[Izan zaitez BERRIAlaguna (https://www.berria.eus/berrialaguna/)](https://www.berria.eus/berrialaguna/)

(http://www.gipuzkoa.net)

(http://www.uzei.eus/online/idite/)

(http://www.emakunde.euskadi.eus/enpresa-erakundeak/-/informazioa/lankidetza-erakundea/)

0 Iruzkin Berria 1 Sa

Gomendatu Tweet Partekatu Berrien

Hasi eztabaida...

HASI SAIOA HONEKIN

EDO ERREGISTRATU DISQUS-EKIN ?

Izena

Egin lehen iruzkina.

Berria.eus - Euskal Editorea SM
Telefonoa: 943-30 40 30
Faxa: 943-59 01 72
Webgunea: webgunea@berria.eus
Publizitatea: publi@bidera.eus
Harpidetza: harpidetza@berria.eus

JARRAITU

Facebook (https://www.facebook.com/Berria...)
Twitter (https://twitter.com/berria)
Instagram (https://instagram.com/berria...)
Youtube (https://www.youtube.com/user/berria...)
RSS (https://www.berria.eus/rss)

SAILAK

Gizartea
Politika
Mundua
Ekonomia
Iritzia
Berria TB
Kirola
Kultura
Bizigiro
Ibilkari
Infografiak
Argazkiak (https://www.berria.eus/argazkiak/)

LEGEA

Lege Informazioa
Pribatutasun politika
Cookieak
Zozketak
Lizentzia
Publizitatea
Bidera zerbitzuak
MIDAS Media (https://www.berria... Media_2020.pdf)